

Herrera



Haurrek lana gogotik egin dute Peru Ene Berri etxeko bidea apaintzeko. Bidea lorez josi dute.

Haurren iraultza

Larraitz Garmendia (finoa.: 943.391267)

auzoko haurrak lanean dabiltza aspalditik Herrera txukun uzteko asmotan. Auzoa estimatzen dute-nez, hau itxuraldatzeko zenbait ekintza aurrera eramaten dituzte urtean zehar. Martxan jarritako azken ekintzen artean, nabarmen-tzekoa da duela gutxi eginda-ko eskulana; zaborretan aur-kitutako lorontzi batzuk konpondu, margotu eta garai-ko lore batzuk landatu.

Lorontziak Peru Ene Berri etxeko bidean jarri dituzte eta zer pentsatua ematen die bertatik igarotzen diren ikasle eta auzokideei. Inguruak bestelako itxura du orain.

Honako hau, dena den, ez da auzoko haurrek egingo duten eskulan bakarra, ikas-taro asko antolatu baitira aurtengo ikasturterako: marrazkia, eskulanak, keramika ikastaroak eta abar. Helduek ere badute zereginik: soinke-ta, aerobika, altzariak zahar-berritzea...

Mendi Zaleakekin Neouveillera

Mendi Zaleak mendi elkarteak hasi ditu jada udazkene-ko irteera eta kanpaldiak. Asteburu honetan Frantziako Pirinoa bisitatuko dute, Neubielle hain zuzen. Mendi honek 3.091 metro ditu eta asteburu osoa mendian egingo dute. Larunbatean, hilak 25, aterako dira auzoko plazatik eta igande arratsaldez itzuliko dira.



UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA

Ikasle berrientzako aurreinskripzio epe urriaren 15erarte luzatu da

1999/00 ikasturterako matrikula epeak

Lehenengo epea: irailaren 21etik urriaren 15era
Bigarren epea: urriaren 1etik azaroaren 3ra

INFORMAZIOA

UNED, S. Martin Deunaren enparantza z/g. 20570 BERGARA
Tfnoa.: 943 76 90 33
E-mail: info@bergara.uned.es
Web: http://info.uned.es/ca-bergara

MATRIKULA ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: 10,00-13,00 / 17,00-20,00
Larunbatetan: (urrian hasita): 09,00-13,00

DONOSTIAN MATRIKULATZEKO BULEGOA

Koldo Mitxelena kulturunean (Urdaneta 9) irekiko da matrikulatzeko bulego bat urrian (matrikulak soilik).
Ordutegia: Asteartetik larunbatera 10,00-13,00



Informatika eta enpresaren kudeaketa VI. MASTERRA

- **Nori zuzendua:** Enpresa eta informatika munduan profesionalki murgildu nahi duten unibertsitate lizentziadunei eta enpresa munduko profesionaliei.
- **Iraupena:** 378 ordu.
- **Hasiera data:** urriak 20
- **Lan poltsa**

Ikasketa plana

- Informatikaren lehen urratsak
- MS-DOS sistema eragilea
- WINDOWS 95 sistema
- Testu tratamendua, WORD 97
- Kalkulu-orria, EXCEL 97
- Datu baseak, ACCESS 97
- INTERNET
- Web orriak sortu
- Present. POWERPOINT
- Datu dokumentaleen basea
- Informatika goi ezagutza
- Teoriko-mekanizatua:
 - Kontabilitate orokorra
 - Balantze azterketa
 - Nominak eta gizarte segurantzza
 - Tributazioa (PFEZ, BEZA, Sozietateen Gaineko Zergak)
 - Merkataritza mailako ingelesa



24 urteko esperientzia

HONAKO AGIRI OFIZIAL HAUEK



Zabaleta kalea 49, 2.-ezk. • Tfnoa.: (943) 275092
E-mail: guvi@guvi.euskalnet.net

Iraki Martinez (fnoa.: 943-452475)

U rte batzuk dira autobia berria eta Abiadura Handiko Trenaren sarea egiteko proiektuak prestatzen hasi zirela. Autobuari dagokionez, hasieran bi proposamen egin ziren: Udalarena eta Foru Aldundiarena. Ia hasieratik Udalarena baztertu egin zen Foru Aldundiarena landuagoa zelakoan. Baina proiektu horri aldaketa handiak egin zaizkio Martuteneko bizilagunei esker, beraiek izan baitira neurri handi batean mugitu egin direnak. Hasierako egitasmo horrek eragingo zituen kalteak saihesteko hainbat proiektu

aurkeztu zituzten auzotarrek.


Helburu nagusiak

Auzotarren helburuak bi dira: inguruan ahalik eta kalte gutxien izatea eta baserriak mantentzea. Egun jende asko bizi da baserriak Martutenen eta lanpostu asko galdu egingo dira proiektu hau aurrera eramateko. Lur hauek izugarri aberatsak dira gainera, inguru honetako baserriarrek sari asko irabazi izan dituzte bertako produktuekin. Okendotegi elkarteko kideek kezka handiz ikusten dute etorkizuna: *"Kalte itzelak izango lirateke baserri hauek botata. Astakeria da Martuteneko ibarra desegitea autobia dela eta"*.

**Auzotarrak
abenduan
emango den
erantzunaren
zain daude**

Behin betiko proiektua

Auzokideek proiektuak bata bestearen atzetik aurkeztu dituzte betiere kalteak saihestu nahian. Hasiera batean auzo elkartek hartu zuen



Okendotegi inguruko lurak AHT-k eta autobideak kaltetuko dituztela diote auzotarrek.

proiektuak aurkezteko erantzukizuna. Ondoren, Okendotegi elkartek hartu zuen ardura hori eta beraiek egin dute azken proposamena.

Martutenear hauen esanetan, beraien alternatibare-

kin ia kalterik eragin gabe egingo litzateke autobia berria. Orain abenduan emango den erantzunaren zain daude auzotarrak, azken erantzunaren zain, obrak berehala hasiko baitira.

Jatorrizko proiektua aldatzeko arrazoiak

Loiolako Urumea Ibaia, Txomin Eneako Lanberri eta Martuteneko Sarroeta auzo elkarrekin Urumeako autobideari buruz egin zituzten proposamenak dira ondorengoak.

- **Interes orokorra:** Urumeako autobidea eta Donostiako saihebidearen arteko lotura zuzena, inolako bizigune ukitu gabe eta etxebizitzak egiteko asmorik ez dagoen gunetik zehar egitea.

- **Martutene:** Trenbide gaineko loturak kendu eta lur azpiko pasabidea eraikitzea. Gune naturala sortzea.

- **Txomin Enea:** Ibilbide berrian autobidea etxeetatik urruntzen da, etxe hauek desagertzea saihestuko dela.

- **Loiola:** Gaurko saihebiderea bizikidetzarako gunea bilakatzea. Auzoak egun duen zatiketarekin bukatu eta kutsadura akustikoa gutxitzea.

- **Amara eta eremu berriak:** Autobus geltoki berrien lotura zuzena bi autobideekin. Autobusen trafikoa gutxitu auzoetako kaleetan.

- **Egia, Gros, Intxaurren:** Urumeako autobidearekin lotura zuzena egitea, Loiola eta Txomin Enea zeharkatu gabe.